



Gobernu berria osatzeko urratsak eman ditu Balladur lehen ministroak

Defentsa eta kanpo arazoak beretzat gorde nahi ditu Mitterrandek

Herenegun François Mitterrandek lehen ministro izateko aukeratutako Edouard Balladur gaullistak bere kargua zin egin zuen atzo arratsean. Egun osoan bertan, Balladur UDF eta RPRko burukideekin bildu zen gobernu osatzeko asmotan. Berri hau idazteko orduan ez zuen artean gobernu iragarri eta gaurko utziko zuela espero zen.

ALLANDE SOKARROS / BAIONA

Edouard Balladur RPRko burukide eta 1986tik 1988ra Ekonomia ministro izandakoa Frantziako gobernuburu izendatzea ez bada ezuste handia izan, aginte aldaketa horren lastertasuna, ordea, ohiz kanpoko izan da. Izan ere, Frantziako Legebiltzarrerako hauteskundeetan eskuinaren garaipen zabaletik landa, Beregovoy gobernuaren dimititzea eta François Mitterrand presidentearen adierazpenak astelehenean bertan gertatuko zirela uste bazen, gobernuburu berriaren izendapena, ordea, ez zen behala espero.

Alabaina, astelehen arratsean 20.00etan telebista kateetan egindako hitzaldian bertan, Mitterrandek jakitera eman zuen Balladur gobernuburu kargura deitzen zuela, alde batetik «gehiengo berriaren osakide ezberdinak batzeko egokiena» iruditzen zitzaiolako eta bestalde, «bere gaitasunengatik». Aukera hori azaldu aurretik, presidentea frantsesei zuzendu zitzaion, erranez, «gehiengo berri zabala aukeratuta, aldaketa nahikunde adierazi duzue; nahikunde hori erabat errespetatuko da».

Beregovoyri eta bere gobernuari «egindako lanarengatik» eskertu ondoren, Mitterrandek zera gehitu zuen: «Alde egiten duen aurreko gehiengoari nere anaitasuneko gogoak adierazten dizkiot eta iritzi diot ere, gaur egungo nekeak igarota, amaitu egin den garaia kontu, epaiketaren leun baten ordua iritsiko dela».

Hitzaldi hori modu leun batean adierazita ere, Mitterrandek argi utzi zuen sail batzuetan bere eskusartzea atxikiko duela, «kanpo arazoetako eta defentsarekiko gure politikak aurrera egin dezan kontuz ibiliko naiz». Europaren bateratze bidea bera ere premiazko joeratzat jo zuen Frantziako errepublikaburuak «gure herriak



UPF osatzen duten talde ugarien arteko oreka gordetzeko zailtasunak izango ditu Balladurrek.

REUTER

Teknokrata fina eta langilea

DONOSTIA

■ Edouard Balladur lehen ministro berria Turkiako Izmirren (Esmirna) jaio zen duela 63 urte. Frantziar herritartasuna zuen bankari armeniar baten semea, ume zela heldu zen Frantziara. Parisen zientzia politikoak ikasi ondoren ENAn (Administrazio Eskola Nazionala) sartu zen. ENAtik irteten ondoren Georges Pompidouk Estatuko Kontseiluan sartu zuen sindikatuaren harremanetan jartzeko. 35 urterekin Pompidou bere babeslearen agindu zuzenetara jarri zen, lehenik Gizarte Arazoetako aholkulari moduan eta Eliseoko idazkari

ontzat hartu duen Maastrichteko Ituna desbideratzerik gabe gauzatu beharko da» eta «diru eredu baturik gabe ez da Europarik izango» adierazi zuen.

**ERREFORME
BATASUNEAN
EUTSI**

Astelehen arratsean 20.30ak eta 22.45ak bitartean Mitterrandekin hitz egin ondoren, Edouard Balladur gobernuburu berriak berak ere frantziarren arteko batasunaren bidari eusteko asmoa duela adierazi zuen Eliseoko jauregitik irteten egindako hitzaldian. Ba-

nagusi moduan gero. Baina Pompidou hil eta Giscard d'Estaing lehendakari izendatu zutenean Balladurrek behin-behineko amaiera eman zion bere ibilbide politikoari eta enpresa pribatuan lanean hasi zen. 1981ean Chiracen hauteskunde kanpaina prestatu ondoren, 1983an itzuli zen politika mundura, kohabitazioari buruzko lehen komentarioa egin zuenean 'Le Monde' egunkarian kaleratutako artikuluan. 1986an, berak aurrikusitakoa bete eta Mitterrandek eskuineko gobernu edukin behar izan zuenean, artean inor gutxik ezagutzen zuen Balladur Ekonomia ministro izendatu zuen Chiracek.

lladurrek iritzi zionez, «gure herriak krisia bizi du eta ahalegin guztiak egin behar dira krisi honi aurre egiteko». Helburu hori lortzeko, Mitterranden agintaldiko bigarren kohabitazioko gobernuburu izango denak «elkartasun, atxikidura eta eraginkortasunez jardungo duen talde ongi neurtu bat» eraiki gogo du bere inguruan.

Balladurrek atzo arratsaldean bertan bere kargua hartu zuen Beregovoyekin solastatu ondoren. Atzo, egunean zehar, lehen ministro berriarekin hitz egitera

Ekonomia ministroa zela funtzionari fina eta langilea izatearen ospea lortu zuen. Adierazpen entzutetsuak eta eztabaida sutuak maite dituen politikoa baino, Balladur negoziazioaren aldeko teknokrata da, aspergarria eta karisma handirik gabekoa. Balladur hautatzean Mitterrandek politikoki itzalik egingo ez dion lehen ministroa aukeratu du. Horren ordez, Balladur ekonomia gidatzeaz arduratuko da, eskuinaren programak berebiziko garrantzia eman baitio: pribatizazioak azkartu, enpresen karga sozialak arindu, defizita murriztu, inflazioaren aurkako borroka segitu eta libera sendotu.

etorri ziren RPR eta UDFko burukide asko, hala nola Gerard Longuet, François Bayrou, Alain Madelin eta Nicolas Sarkozy. Azken hau bi aldiz agertu zen Balladurren bulegoak dauden Saint Germain hiribideko egoitzara. Nabari denez, elkarrizketa guztiok gobernu berriaren osaketa finkatzeko dira. Gobernuburu izendatu aurretik ere, Balladurrek solasaldiak izan zituen astelehenean zehar UPFko pertsonalitate ezagun batzuekin, hala nola, Alain Juppe, François Léotard eta Simone Weil.

PS: «Balladur kontserbadoreen ordezkaria da»

PARISE

Jean Jack Queyranne Frantziako alderdi sozialistako bozeramailearen esanetan, Edouard Balladur gobernuburu berria «Europako eskuinaren ordezkaria da», baina «aldi berean, arlo askotan oso kontserbadorea den eskuinaren ordezkaria».

France Info irrati kateari egindako adierazpenetan, PSko eleduak Balladurren politikaren eraginaz ohartarazi zituen frantziarrak. Bere hitzetan, lehen ministro berriak «zentro-eskuinaren programa aplikatuko du, eta frantziarrak gutxinaka-gutxinaka ohartuko dira gizarte, hezkuntza eta ekonomi arloetan zein eragin izango duen politika horrek». Balladur europazalea izatea logikoa da Queyranneren arabera, «Mitterrandek ezingo zuelako sekula Europaren aurka dagoen pertsona bat hautatu».

Herenegun eguerdian sostengu osoa RPRko hautagaiari eman zion Valéry Giscard d'Estaing UDFko lehendakariak, ordea, «arrazoizkotzat» jo zuen Balladur aukeratu izana, «hauteskundeetako emaitzak aztertuta hartu beharreko erabakia» zelako. UPFren «arrakasta handia» goraiatu ondoren, Giscardek aitortu egin zuen RPRk UDFrekiko «hazkuntza nabarmena» izan duela eta hortaz, «RPRko gizona hautatzea arrazoizkoa zen».

**LIENEMANN
ROCARDEN
ALDE**

Jacques Barrot Legebiltzarreko talde zentristako orain arteko lehendakariak esan zuenez, «Balladurrek ongi daki bere aurrean dituen erronken garrantziaz eta gai da herriak behar dituen aldaketei berehala ekiteko». Ladislas Poniatowski Alderdi Errepublikarreko (PR, UDFko kide) eledua pozik agertu zen Balladur laister hautatu izanagatik eta Mitterranden erabakiak «frantziarren eta gehiengo berriaren nahiak errespetatu ditu» azpimarratu zuen.

Pierre Beregovoyren gobernuan Etxebizitzarako ministroa izandako Marie Noëlle Lienemann Michel Rocardek proposatutako ezkerrean berregituratzeko proiektuaren alde agertu zen atzo.

France-2 telebista kateari egindako adierazpenetan, Marie Noëlle Lienemannek ezkerreko indarrek batasun prozesuaren eztabaida hastea eskatu zuen.